

OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA

ARANGUREN IBARREKO UDALAREN INFORMAZIO BULETINA

IRAILA 2021 / 55. ZK.

Nabarmentzekoak...

LAN AURREKO TAILERRA

- ▶ CP1: BILTEGIKO LAN OSAGARRIAK

HAURTZAROA ETA FAMILIA

- ▶ FAMILIA TAILERRA: ERREGULAZIO EMOZIONALA ETA ELKARBIZITZA FAMILIAN
- ▶ EMAKUME ETA FAMILIENTZAKO LAGUNTZA JURIDIKORAKO ZERBITZUA
- ▶ DOAKO AHOLKULARITZA PSIKOLOGIKO ZERBITZUA
- ▶ LUDOTEKA TXALOPOTE (URRIA-EKAINA)
- ▶ LUDOTXIKI (AZAROA - EKAINA)
- ▶ LIBURUEN MAILEGU ZERBITZUA GURASOENTZAT

BESTE ZERBITZU ETA JARDUERAK

- ▶ HELDUENTZAKO OINARRIZKO FORMAKUNTZA
- ▶ ATZERRITARRENTZAKO GAZTELANIA

ADINEKO PERTSONAK

- ▶ 60 URTEK GORAKOENTZAKO LANTEGIA: MUGIKORREKO APLIKAZIOAK ETA INTERNET
- ▶ ARANGUREN IBARREKO JANTOKI OSASUNGARRIA
- ▶ ARANGUREN IBARREKO PODOLOGIA ZERBITZUA
- ▶ AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA



MUTILOA PLAZA Z/G - MUTILOA
ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK
OSTIRALERA
9:00ETATIK 14:00ETARA
TEL: 948151382

Aranguren Ibarreko Lutoteka eta Ludotxikia



Kasturtea hasterekin batera, Aranguren Ibarreko Ludotekak berriz ere atea irekiko dizkie 2010 eta 2018 bitartean (biak barne) jai eta beren denbora librean jolas eta jardueren bidez arindu nahi duten Ibarreko haur guztiei.

Aranguren Ibarreko Udal Ludoteka aisialdirako gune hezitzailea da. Bertan haurren jolas eta esperimendazio beharrak kontuan hartuz aisialdiaren arloa lantzen da, baita beste arlo batzuen estimulazioa ere: arlo afektiboa, soziala, kognitiboa, mugimendua eta adierazkortasuna.

Zeharka landuko dira hezkidetzak, genero-berdintasuna, kulturartekotasuna, ingurumenaren zaintza eta osasunaren sustapena bezalako kontzeptuak.

Aranguren Ibarreko Ludotekaren helburu ezberdinen artean hauek nabarmenduko ditugu:

- Haurren garapen kognitiboa, psikomotorra, afektiboa eta soziala sustatzea ingurune ludiko batean, hainbat jardueraren bidez.
- Haurrari jolasaren bidez irudimena eta sormena garatzen laguntzea.
- Jolasa ez ezik, komunikazioa, talde-lana eta elkarrenganako errespetua bultzatzea.
- Zerbitzuan parte hartzen duten haurrak elkartasunezko eta berdintasunezko balioak sustatuz eta desberdintasuna errespetatuz hezte.
- Hurrei, baita edozein ezgaitasun edo zailtasun izanda ere, haien garapenean laguntzeko material ludiko egokia ematea.
- Euskarazko taldeei dagokienez, jardueraren helburua da hurrek eskolan ikasten duten hizkuntzaren ezagutza indartzea eta ikasgelatik kanpo erabiltzeko ohitura sustatzea.

Ludoteka Mutiloako Idoi plazan dago (astelehenetik ostiralera) eta LARUNBATETAN Eguzki plazako Kultur Etxeko kanpoko aretoan, 17:00etatik 19:00etara.



Aranguren Ibarreko Ludotxiki

Halaber, Aranguren Ibarreko Ludotxiki Zerbitzuaren berri duzue jarraian (haurrentzako jolastokia da).

Ludotxikiko atea zabalik daude beren 0 eta 3 urte bitarteko hurrekin etorri nahi duten guraso guztientzat. Bertan, haien aisialdia arindu ahaliko dute jolas eta jardueren bidez.

Ludotxikiak, aurretik adierazitako datetan, begiraleen laguntza izanen du. Egun horietan gurasoei zuzendutako jarduerak egingo dira: haurren yoga, haurren masajea, kamishibai ipuinak... eta bestelako gaiei buruzko oinarritzko ezagutzak eskaintzeko.

Ludotxikira hurrek adingabearen ardura hartuko duen heldu batekin joan beharko dute beti.

Ludotxikia Mutiloako Kultur Etxeko kanpoko aretoan dago (Eguzki plaza), astearte eta ostegunetan, 17:00etatik 19:00etara.

ANIMA ZAITEZ ETA PARTE HARTU!! ZURE ZAIN GAITUZU!!
INFORMAZIO GEHIAGO 4. ORRIALDEAN

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK

CP1: BILTEGIKO LAN OSAGARRIAK (170 ordu teoriko eta 40 ordu praktiko)



Ikastaroa Aranguren Ibarrean erroldaturik dauden eta langabezian zein Aranguren Ibarreko enplegu poltsan alta emanda eta indarrean dauden pertsonentzat da.

Ikastaroa doakoa da ikasleentzat, eta joan-etorrietarako bertaratutako egun bakoitzeko 2 euroko diru-laguntza izanen da.

Astean 13 ordu baino gehiago lan egin eta ikastaroa egin nahi dutenek egin ahalko dute, baina ez dute joan-etorrietarako diru-laguntzarik izanen.

Behin pertsona bat onartutakoan (sms bidez), alde aurretik Oinarrizko Gizarte Zerbitzuari jakinarazi gabe ikastarora ez joateak, urtebeteko epean beste ikastaro bat egitea eragotziko dio.

Prestakuntza honen helburua da parte hartzaileak biltegiako jardura osagarrien espezialitatean gaitzea, hainbat eragiketaren

bidez: harrera, zama jaso eta bereiztea, oinarrizko kokalekua ematea, zamalanak prestatu eta igortzea, modu koordinatuan edo taldean, arduradun batek gainbegiratuta, jasotako jarraibideei jarraituz, eta prozedura eta ekipo egokiak aplikatuz, produktibitate-baldintzetan eta segurtasunari, osasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko araudia errespetatuz.

BALDINTZAK:

- ›Gaztelania menperatzea (hitzez, irakurritz eta idatziz)
- ›Gidatzeko B1 baimena.

TEORIA:

Datak: Urriak 13tik abenduak 20ra.

Ordutegia: 09:15etik 13:30era, astelehenetik ostiralera.

Lekua: Rodoia 2000 SL gela. Iwer Eraikina Iruña. (Marcelo Celayeta Etorb. 75)

Plazak: Gehienez 15 pertsona.

PRAKTIKAK:

(Soilik modulu teorikoak gaintzen dituzten pertsonak egingo dituzte).

Datak: Abenduaren 18tik aurrera.

Ordutegia eta datak: Enpresak zehazteke. (ordutegi disponibilitatea eta joateko aukera beharrezkoa izango dira).



PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK: ARANGUREN IBARREKO UDALEKO ENPLEGU PLANA

IZEN EMATEAK: IRAILAK 27 ETA 28
ONDORENGO TELEFONOETARA DEITUZ: 948 012 012 (DOAN TARIFA FINKOA DUTEN
TELEFONOENTZAT) EDO 012RA (DEIAREN KOSTUA 0,34 €) 8:00ETATIK 18:00ETARA

FAMILI TAILERRA

“Regulación emocional y los conflictos en la convivencia familiar”:



Gure seme-alaben garunak gainezka egiten dien egoeretan nola funtzionatzen duen jakitea da zer gertatzen zaien eta nola lagun diezaiekegun ulertzeko lehen urratsa.

Helduok ikuspuntu arrazional batetik aztertzen dugu haurrei zer gertatzen zaien, eta ahaztu egiten zaigu 7 edo 8 urte arte ez dutela arrazoibide logikorik, emozioak bizitzeko helduok ez dugun beste modu bat dutela.

Txikiak amorrua, frustrazioa, tristura, errua, larritasuna, kezka... nola prozesatzen dituzten jakitea oso garrantzitsua da horiei aurre egiten lagundu nahi badiegu.

Tresna batzuk ikasteak eta txikiaren psikismoaren alderdi batzuk ezagutzeak eguneroko zailtasunak hobeto

maniatzen lagunduko digu, geure buruarekin hobeto sentitzen. Gaitasun eta lasaitasun handiagoak izango ditugu gure haurrei beren bizitza eta garapen prozesuan laguntzeko.

Datak: **asteazkenak: urria 13 eta 20.**

Ordutegia: **17:00etatik 19:00etara.**

LEKUA: **Mutiloako San Pedro Ikastetxe Publikoan.**

Emaila: **Lourdes Díez, psikoterapeuta.**

IZEN EMATEAK: **irailak 27 eta urriak 2 bitartean, 948 151382 telefonora deituz edo rgarralda@aranguren.es e-postan.**

EMAKUME ETA FAMILIENTZAKO LAGUNTZA JURIDIKORAKO ZERBITZUA



Emakume eta familientzako laguntza juridikorako zerbitzua Aranguren Ibarrean erroldatuta dagoen pertsona orori zuzendutako zerbitzua da eta musu-truk eskaintzen da familiarekin zer ikusia duten gaien inguruko informazioa (banantzeak, dibortzioak, izatezko bikoteak, ezkontzaren ondasuneraentzea...), laneko gaiak (amatasun eta aitatasun baimenak, edoskitzeak, eszedentziak eta zaintzarako baimenak, kaleratzeak...), gizarte zerbitzuaren prestazioak (alarguntza-pentsioa, zurtasuneko...), testamentuaren antolaketak, emakumeenganako indarkeriari buruzko gaiak (denuntziak, urrutze aginduak...).

ARRETA ORDUTEGIA:

Ostegunero eskainiko da, **10:00etatik 13:00etara, Aranguren Ibarreko Udaleko bigarren solairuan (Mutiloa plaza z/g).**

Informazio gehiagorako eta hitzorduak hartzeko: **Oinarrizko Gizarte Zerbitzua. Telefonoa 948 151 382.**

DOAKO AHOLKULARITZA PSIKOLOGIKO ZERBITZUA



Irailaren 17an, ostiraletan, Aranguren Ibarrean erroldatuta dauden 14 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzendutako aholkularitza psikologiko zerbitzua berrabiaraziko dugu.

Zerbitzu honek familiako eta jendarteko harremanak hobetzen laguntzen du eta honako alderdi hauek joratzeko aholkularitza ematen du: auto-estimua, gaitasun sozialak, estresa eta antsietatea, beldurrak, egoera depresiboak, aldaketei egokitzea, elikadurarekin lotutako nahasdurak, menpekotasunak...

Zerbitzua erabiltzeko, alde aurretik hitzordua eskatu behar da Aranetxean (Aranguren Ibarreko Gaztediaren Etxean), Kale Nagusia 2, bis. Telefonoa: **948 23 75 58.**

Zerbitzua ostiraletan eskainiko da, **17:00etatik 19:00etara.**

LUDOTEKA TXALOPOTE (URRIA-EKAINA)



kasturtea hastearrekin batera, Aranguren Ibarreko Ludotekak berriz ere atek irekiko dizkie 2010 eta 2018 bitartean (biak barne) jai eta beren denbora libre jolas eta jardueren bidez arindu nahi duten Ibarreko haur guztiei.

Adinaren arabera jarduera ezberdinak egingo ditugu:

- ▶ **4-7 urte bitarteko taldea:** Esploratzaile Txikiak.
- ▶ **8-12 urte bitarteko taldea:** Aisia eta denbora librearen Kluba.

LUDOTEKA: IDOI PLAZAKO LOKALAK:

ORDUTEGIA:

Astelehena: 17:00etatik 19:00etara INGELESA.

Asteartea: 17:00etatik 19:00etara GAZTELANIA.

Asteazkena: 17:00etatik 19:00etara INGELESA

Osteguna: 17:00etatik 19:00etara. EUSKARA.

Ostirala: 17:00etatik 19:00etara

GAZTELANIA-EUSKARA (A eredu)

HASIERAKO DATA:

Urriaren 1a, ostirala, 17:00etan.

Bukaera: 2022ko ekainaren 17a.

Kuotak: urteko 25 €

7 € hilabetekoa, izen-emateak plazak egonez gero

1 € egun solteak, izen-emateak plazak egonez gero.

LUDOTEKA LARUNBATETAN

(Kultur Etxeko kanpoko gela, Eguzki plaza, Mutiloa).

ORDUTEGIAK:

Larunbata: 17:00etatik 19:00etara.

Hasiera: urriak 2 (larunbata).

Kuota: 10 € urteko.

Bukaera: 2022ko ekainak 18



LUDOTXIKI (AZAROA - EKAINA)

Ludotxikia Aranguren Ibarrean errolatutako hurrei zuzendutako jolaserako gunea da, 0-3 urte bitartekoentzat. Gune horretara, hurrek beti heldu batekin joan behar dute eta heldu horrek haurra bere zaintzapean izan beharko du.

- ➔ Ludotxikia Mutiloako Kultur Etxeko kanpoko gelan dago (Eguzki Plazan) Edukiera indarrean dagoen araudiaren arabera izango da.

HASIERA: Azaroak 2 (asteartea)

Bukaera: 2022ko ekainak 17.

Egunak: astearte eta ostegunetan.

Ordutegia: 17:00etatik 19:00etara.

Kuota: 10€.

KUOTA ORDAINKETA:

Jarduera burutuko den gelara joan eta lehenengo egun horretan ordainduko da, han bertan.

IZEN-EMATEAK

TXALOPOTE LUDOTEKA, LARUNBATETAKO LUDOTEKA ETA LUDOTXIKIA, Irailak 28 eta 29

Telefono hauetara DEITUZ: **948 012 012** (doakoa tarifa finkoa dutenentzat) edo **012** (0,34€/ deia), 8:00etatik 18:00etara.

Plazarik egonez gero, jarduerako lehen egunean izena eman ahalko da. Plaza mugatuak dira eta behar izanez gero, zozketa ginen da.

Oharra: Gutxienez 10 hurrek izen-ematea eskatzen da zerbitzua eskaini ahal izateko eta 20 haur gehienez.

LIBURUEN MAILEGU ZERBITZUA GURASOENTZAT




Gizarte Zerbitzutik zuen seme-alabaren eguneroko heziketan laguntzen ahal dizueten zenbait libururen irakurketa aholkatzen dizuegu, gainera erosi beharrik gabe irakurri ahalko dituzue. Horretarako, liburuak maileguan hartzeko zerbitzua eskaintzen dugu. Liburuak hiru asteko epean hartu daitezke eta luzapenerako aukera dago.

Baten bat erreserbatu nahi baldin baduzu, ondorengo loturan aurkituko duzun mailegu eskaera betez egin ahalko duzu: <http://www.aranguren.es/prestamo-de-libros-para-padres-y-madres/> edo Gizarte Zerbitzura hurbildu eta bertan eskaera hori bera bete.

ORAINGOAN HURRENGO BI IRAKURGAIK UTZI AHAL DIZKIZUGU MAILEGUAN

“GIDA:La Autoestima+IPUINA: Noelia viste de lunares el mundo”

Esperanza García Sancho, María Isabel Borda Crespo



Izenburu horrek bi liburu ditu. Alde batetik, auto-estimari buruzko gurasoentzako gida bat, egiaztatutako informazioa eta aholku praktikoak dituena, egunero zer egin behar den eta

zer ez. Bestetik, haurrentzako ipuin bat, beren emozioak modu positiboan eta dibertigarrian bideratzen laguntzeko, beren kezak eta zailtasunak konpontzeko, azken batean, hazi, garatu eta handitzeko erronkei aurre egiteko. Gida liburua: zer da auto-estimua?, nola landu daiteke auto-estimua gure seme-alabengan? Onarpen-sentimendua sustatzea. Gaitasun sentimendua sustatzea. Gure seme-alabentzako eredu gara. Puntu nagusiak jasotzen. Ipuina: Noelia besteek ez bezalako azala duen zebra bat da. Ez zuen bere burua onartzen eta besteek bezalako izan nahi zuen. Baina zoriontsu izateko bidea aurkitu zuen.

Un villano llamado estrés: cómo impacta en nuestra salud

M^o Isabel Peralta Ramírez



Gure bizitza sentiarazten, ametsarazten eta bibrarazten gaituzten abentura zirraragarri beteta dago. Bestalde, bizi-ibilbidearen alderdirik ezatseginenak ziurtatzen digu mina, galera, gaixotasuna, zahartzea, pobrezia eta baita bazterketari ere aurre egin beharko diogula. Berri on bat dugu ordea!

Ezbeharrari modu estoikoan aurre egiteko diseinatuta dago gizakia, indar handia dugu ezbeharrari jasateko, lehen instantzian borrokatzeko, eta bigarrenetan gaintzeko. Hala ere, denak ez dira albiste onak, gaitasun handi hori etengabe aktibatzeak fisikoki nahiz psikologikoki eragiten baitu.

HELDUENTZAKO OINARRIZKO FORMAKUNTZA



Irakurketa edota idazketa finkatu eta kalkulu matematikoko oinarrizko ezagutzak eskuratu behar dituzten pertsonentzat da, eta, oro har, oinarrizko ezagutza-maila lortu nahi duten pertsona heldu guztientzat, beren gizarte eta kultura-ingurunean parte hartu eta bizitzan zehar ikasten jarraitu ahal izateko.

Formakuntza "José M^a Iribarren" Helduen Oinarrizko Hezkuntzarako Ikastetxe Publikoko irakasleek emango dute.

Lekua: Mutiloako Jubilotekako lokaletan (Osasun Etxeko beheko aldean)

Ordutegia: astelehen eta asteazkenak, 15:30etik 17:30era.

Hasierako data: iraileko bigarren hamabostaldia.



INFORMAZIO GEHIAGORAKO:
ARANGUREN IBARREKO UDALEKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA
(Mutiloa plaza z/g, Mutiloa, Telefonoa: 948 151 382)

ATZERRITARRENTZAKO GAZTELANIA



Iruñako "José M^a Iribarren" Helduen Oinarrizko Hezkuntzarako Ikastetxe Publikoak gaztelaniazko prestakuntzarako doako ikastaroak ematen ditu, ikasleei hizkuntza ulertzeko eta adierazteko baliabideak eskaintzeko.

Ikastaroak lau hilabetekoak dira eta irailean hasten dira.

Eskolak goizez, bazkalondoren eta arratsaldean ematen dira.

Saioak ordu eta erdikoak edo bi ordukoak dira, astean hiru edo lau egunez.

Ikasketa maila ezberdinak daude, alfabetizaziotik hasi eta goi mailara arte.

MATRIKULA:


Irailaren 1etik aurrera on-line edo "Jose María Iribarren" Ikastetxe Publikora bertaratuz Bartolomé de Carranza k/ 5, Iruña. **Telefonoa: 848 43 04 00.**



FORMAZIOA MUTILOAN EGITEKO INTERESA BALDIN BADUZU, JARRI ZAITEZ HARREMANETAN
Aranguren Ibarreko Gizarte Zerbitzuarekin 948 15 13 82 telefonoan, 9:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera.

60 URTETIK GORAKO PERTSONENTZAKO LANTEGIA

"Aplicaciones del móvil, compras por internet y otros usos"



Gaur egungo osasun-egoera dela eta, pertsona askok gizarte-bizitza murriztu dute, eta teknologien erabilera ezagutzen ez dutenez (mugikorra, tableta, ordenagailua...), ezin dira konektatu maite dituzten pertsonekin.

Hori dela eta, teknologia digitala adinekoengana hurbildu nahi dugu, gainerako senideekin komunikatzeko aukera izan dezaten eta etxetik atera beharrik gabe lagunduagoak senti daitezten; aldi berean, eguneroko jarduerak egiteko lagungarriak egingo zaizkien aplikazio eta tresna digitalen erabilera ikas dezaten.

Tailer honen bidez, **60 urtetik gorako pertsonen** teknologekin lagundu nahi zaie, komunikatzeko gailu eta tresnetan autonomoak izan daitezten:

- ▶ Whatsapparen erabilera eta bideo-deiak.
- ▶ Mugikorreko beste aplikazio batzuen erabilera.
- ▶ Mugikorreko argazki kamera eta bideoak.
- ▶ QR kodeak.
- ▶ Internet bidez erosi.
- ▶ Kalkulu orriak.
- ▶ Online dauden joko eta denbora-pasak...

Tailerra praktikoa izango da batez ere, eta pertsona bakoitzak bere gailua eraman beharko du: tableta, mugikorra edo erabili nahi duen ordenagailua.



DATAK: ASTEAZKENAK, URRIAK 20 ETA 27.
ORDUTEGIA: 11:00ETATIK 13:00ETARA IZEN EMATEA: URRIAK 4 ETA 11 BITARTEAN, 948 151 382 TELEFONORA DEITUAZ EDO rgarralda@aranguren.es POSTA ELEKTRONIKOAN.
LEKUA: ERRETIRATUEN ELKARTEKO JARDUERA GELA, MUTILOA PLAZAKO 5EKO 1. SOLAIRUAN. EMAILEA: COCOKIDS.

ARANGUREN IBARREKO JANTOKI OSASUNGARRIA:

Jantoki osasungarria Aranguren Ibarreko Jubilotekarekin batera adinekoei laguntza integrala eman nahi dien baliabidea da

Haren helburu nagusia da Aranguren Ibarreko adineko pertsonen modu osasuntsu eta orekatuan bazkaldu ahal izateko gunea sortzea eta, aldi berean, konpainian egiteko aukera izan dezatela.

NOLA FUNTZIONATZEN DU?

Aranguren Ibarreko 60 urtetik gorako pertsonen parte har dezakete, baldin eta beren kasa moldatzen badira.

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 13:30etik 15:00etara.

Denboraldia: urte osoan zehar.

Lekua: Mutiloako Osasun Etxearen azpialdeko zentroan.



INFORMAZIO GEHIAGO: ARANGUREN IBARREKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUA. MUTILOA PLAZA Z/G. TELEFONOA: 948 151 382

ARANGUREN IBARREKO PODOLOGIA ZERBITZUA



Podologia Zerbitzuak oinen zaintza du helburu, beti ere sendaketa ez kirurgikoen bidez eta oinarrizko podologiako ebaketa eta zaintzak erabiliz. Zerbitzua martxan dago dagoeneko eta Aranguren Ibarrean erroldaturik dauden 60 urtetik gorako pertsonentzako da.

Etkez etxeko zerbitzua ere eskatu daiteke, beti ere interesa duen pertsonak mendekotasun gogorra, handia edota podologia zerbitzua dagoen gelara mugitzea eragozten dion ezgaitasuna aitortua duela egiaztatzen baldin badu.

Podologiako kontsultategia Erretiratuen San Pedro Elkarteko lehenengo solairuan dago (Mutiloa plaza z/g, Mutiloa). Zerbitzua, ostegun arratsaldetan izanen da, **17:00etatik 20:00etara**.

Zerbitzuaren prezioa **12 eurokoa da kontsultategian bertan eta 18 eurokoa etxean**.



ARRETA AURREKO HITZORDU BIDEZKO DA. HITZORDUAK ARANGUREN IBARREKO OINARRIZKO GIZARTEAN (MUTILOA PLAZA Z/G, 1. SOLAIRUA) EMATEN DIRA AURREZ-AURRE ETA BAITA TELEFONO HONETAN ERE: 948 151 382

ZURE INTERESEKOA IZAN DAITEKE....

Adinekoen edota desgaitasuna duten pertsonen autonomia pertsonala sustatzeko eta mendekotasunari aurrea hartzeko 2021eko laguntzen deialdia



NORENTZAT

- Mendekotasun graduren bat duten pertsonak edo ezgaitasunen bat aitortua dutenak
- 65 urtetik gorako pertsonak, aurreko kasuetan ez egon arren, funtzioaren baterako autonomia galtzea eragiten dieten eta osasun-sistemaren txosten fakultatiboaren bidez egiaztatutako patologiak dituztenak.

DESKRIPZIOA

Ematen diren laguntzak autonomia pertsonala sustatzera eta mendekotasunari aurrea hartzera bideratuko dira, Gizarte Eskubideen Departamentuaren esparruan, eta tipologia hauetako batean sartuko dira:

- Zainketa eta babes pertsonala errazten duten laguntza-produktuak
- Komunikaziorako eta informaziorako laguntza-produktuak
- Mugikortasun pertsonalerako laguntza-produktuak eta mugitzeko gaitasuna handitzeko laguntzak

ARAUDIA

- 97/2021 Foru Agindua, martxoak 22koa, zeinaren arabera laguntzak emateko oinarriak onartzen diren.

Informazio gehiagorako: Aranguren Ibarreko Oinarrizko Gizarte Zerbitzua. Telefonoa: 948 151 382